

## Oraindik ez dituzu eskatu Argiaren Bonu Soziala eta Bonu Termikoa?

**Argiaren Bonu Soziala** Estatuko Gobernuak kolektibo zaurgarrienetako kide diren herritarrak babesteko 2009an sortu zuen mekanismo bat da; besteak beste, kide ugariko familiak babesten ditu.

**Bonu Termikoa** berogailuaren eta ur beroaren edo sukaldearen erabilerak kontsumitzaile zaurgarrienei eragiten dizkien gastu termikoak konpentsatzeko laguntza-programa da.

Urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuak kontsumitzaile zaurgarriaren izaera, Bonu Soziala eta energia elektrikoaren etxeko kontsumitzaileentzako beste babes-neurri batzuk arautzen ditu, eta urriaren 6ko ETU/943/2017 Aginduak garatzen du, hurrenez hurren. Bonu Soziala aplikatu ahal izateko bete beharreko baldintza berriak jasotzen dituzte.

### **OHIKO GALDE-ERANTZUNAK**

#### **BALDINTZAK ETA HARTZAILEAK**

##### **Argiaren Bonu Soziala**

1. Ohiko etxebizitzan Kontsumitzaile Txikiarentzako Borondatezko Prezioa (KTBP) kontratatuta izatea.
2. Norberarekin, familiarekin eta errentarekin lotutako baldintzak betetzea.

**OHARRA:** Bonu Soziala eskuratu ahal izango du erreferentziako merkaturatzailean ohiko etxebizitzarako Kontsumitzaile Txikiarentzako Borondatezko Prezioaren (KTBP) araberrako tarifa kontratatuta duen edozein pertsona fisikok, baldin eta kontratatutako potentzia 10 kW-etik beherakoa bada.

Energia-terminoaren gaineko deskontua muga kontuan hartuta aplikatuko da, urtean 4.140 kW-ordutik urtean 4.761 kW-ordura hedatu dena\*.

\*Bonu Sozialaren hobariaren gehikuntza hau 2023ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

Bonu Soziala aplikatzeko, 3 kontsumitzaile-mota bereizten dira:

- a) Zaurgarria (kide ugariko familiak, besteren artean)
- b) Zaurgarri Larria (errenta-maila txikiko kide ugariko familiak, besteak beste)
- c) Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dagoen Zaurgarri Larria

##### **Bonu Sozial Termikoa**

Bonu honen onuradunak dira, inolako izapiderik edo eskaerarik egin behar izan gabe, **aurreko urteko abenduaren 31n Bonu Sozialaren onuradun izandakoak**, bai eta egun hori baino lehen eskabide osoa aurkeztu eta, azkenean, aldeko ebazpena jaso zutenak ere.

## ZUZKIDURA EKONOMIKOA

### Argiaren Bonu Soziala

Zaurgarria (fakturan jaso beharreko deskontua % 60tik % 65era hedatu da)\*

- Kide ugariko familiaren titulua izatea.

Enpresa merkaturatzaileek lau hilabeteko epea izango dute, eta ez bi hilabetekoa, kontsumitzaile zaurgarriari argiaren hornidura eteteko, faktura ordaindu ez dutelako.

Zaurgarri Larriak (fakturan jaso beharreko deskontua % 70etik % 80ra hedatu da)\*

- Errenta-maila IPREM (15.039,18 euro) bi aldiz baino txikiagoa duten kide ugariko familiak.

Enpresa merkaturatzaileek lau hilabeteko epea izango dute, eta ez bi hilabetekoa, kontsumitzaile zaurgarriari argiaren hornidura eteteko, faktura ordaindu ez dutelako.

\*Bonu Sozialaren hobariaren gehikuntza hau 2023ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden Zaurgarri Larriak:

Kontsumitzaile zaurgarriarentzat finkatutako errenten % 50era iristen ez diren eta gizarte-zerbitzuek artatzen dituzten bezeroak dira; haien fakturaren zenbatekoaren % 50, gutxienez, gizarte-zerbitzuek ordaintzen dute. Kontsumitzaile hauek ez dute argia ordainduko: % 50 gizarte-zerbitzuek ordainduko dute, % 10 merkaturatzaileak eta % 70 Bonu Sozialari berari dagokion deskontua da.

\*Enpresa merkaturatzaileek ezin izango diete hornidura eten gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonen.

### Bonu Sozial Termikoa

35 eta 350 €-tik 40 eta 375 €-ra handitu da 2022rako laguntza (2023an kobratuko da), onuraduna bizi den klima-eremuaren eta familiaren zaurgarritasun-mailaren arabera. (Ezinbestekoa da aurreko urteko abenduaren 31n Argiaren Bonu Sozialaren onuradun-izaera eduki izana).

## ESKAERA

### Argiaren Bonu Soziala

Bonu Soziala alde aurretik izapidetu duten bezeroen kasuan, indarrean dagoen araudiaren arabera, **aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen** ez badute Bonu Soziala baldintza berrietan aplikatzeko eskatu eta egun onuradunak badira, data horretatik aurrera sortzen den lehen fakturatik aurrera, edo hurrengotik aurrera, Bonu Soziala aplikatzeari utzi, eta argindar-hornidura KTBPre arabera fakturatuko da.

Bonu Soziala modu hauetakoren batean eska daiteke:

- Dagokion eskabidea beteta eta banatzailearen bulegoetan aurkeztuta; jasotzen duenean, erreferentziako merkaturatzaileari bidaliko dio (bulego-sarerik ez badute salbu).

- Dagokion eskabidea beteta eta eskaneatuta erreferentziako merkaturatzaileak bere webgunean eta fakturan ageri duen fax-zenbakira edo helbide elektronikora bidalita.
- Dagokion eskabidea beteta eta erreferentziako merkaturatzailearen bidez aurkeztuta (aukera hori ematen badute).
- Dagokion eskabidea beteta erreferentziako merkaturatzaileak bere webgunean ageri duen posta-helbidera bidalita.

\*Kide ugariko familien kasuan, Bonu Soziala **titulua iraungi arte** egongo da indarrean.

Indarraldia amaitzeaz dagoenean, epemuga hori baino 15 egun balioudun lehenago, gutxienez, kontsumitzaileak berritzeko eskatu ahal izango du, eskaera egiteko aurreikusitako bideetako bat erabiliz. Nolanahi ere, kasu hauetan, erreferentziako merkaturatzaile elektrikoak gutuna bidaliko du Bonu Soziala iraungi aurretik.

## **Bonu Sozial Termikoa**

Bonu honen onuradunak dira, **inolako izapiderik edo eskaerarik egin behar izan gabe**, aurreko urteko abenduaren 31n Argiaren Bonu Sozialaren onuradun izandakoak, bai eta egun hori baino lehen eskabide osoa aurkeztu eta, azkenean, aldeko ebazpena jaso zutenak ere.

Onuradun bakoitzari dagokion laguntza urtean behin ordainduko da, osorik, haren kontu korrontean, faktura elektrikoa helbideratuta duen horretan, hain zuzen ere.

### **Bonu Sozial Termikoa 2020**

#### **Non erreklama ditzaket 2020ko Bonu Sozial Termikoarekin lotutako kudeaketa-kontuak?**

Erreklamazioa kudeaketarekin lotuta badago, hau da, kontua edo, heriotzagatik, titularra aldatu delako bada, ZUZENEAN zerbitzura jo behar da (AURRETIKO HITZORDUarekin, online edo 945 01 90 00 zenbakira deituz eskatuta):

Ordutegia 08:00etatik 19:30era da (abuztuan salbu: 08:00-14:30).

- Gasteiz: Ramiro de Maeztu 10, behea
- Bilbo: Kale Nagusia, 85
- Donostia: Andia, 13

### **Bonu Sozial Termikoa 2021**

#### **Noiz kobratuko dut 2021eko Bonu Sozial Termikoa?**

Kobrantzaren kudeaketa Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren esku badago ere, Bonua izapidetzeko Estatu-mailako dekretu bat onartu behar da, oraindik osorik idatzi gabe dagoena; beraz, hilabete batzuk beharko dira izapidetzeko.

## ESKAERA IZAPIDETZEKO AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

### Argiaren Bonu Soziala

Hobaria eskuratzeko, kide ugariko familiak agiri hauek bete eta aurkeztu behar ditu:

- Eskabidea.
- Hornidura-puntuaren titularraren IFZren edo AIZren fotokopia, edo, hala badagokio, familia-unitateko kide guztienak (familia-unitateko 14 urtetik beherako kideen IFZ edo IAZ ere aurkeztu behar da, baldin badute).
- Familia-unitateko kide guztien erroldatze-ziurtagiria, banakakoa edo baterakoa.
- Familia-liburuaren fotokopia edo, hala badagokio, familia-unitateko kide bakoitzaren Erregistro Zibileko banakako orriaren ziurtagiria.
- **Kide ugariko familia:** kide ugariko familiaren tituluaren fotokopia.

## ARGIAREN BONU SOZIALA FINANTZATZEN DUTEN MERKATURATZAILEAK

### **1. ENDESA ENERGIA**

Telefonoa: 800 760 909/800 76 03 33

Endesa Energía XXI, S.L. Apartado de Correos 1167. 41080 (Sevilla).

Webgunea: [hemen](#)

Email-a: [bonosocial@endesa.es](mailto:bonosocial@endesa.es)

## **2. CURENERGIA (LEHEN IBERDROLA)**

Telefonoa: 900 225 235 / 900 200 708

Fax-a: 944 664 903

Correo Postal-a:

IBERDROLA Comercialización de Último Recurso

Apartado 61017. 28080 - Madrid

Webgunea: [esteka](#)

Email-a: bonosocial@iberdrola.es

### **Arabako Delegazioak**

**Llodio:** Lamuza, 12 - 01400

**Vitoria-Gasteiz:**

Jesús Guridi, 8 - 01004

Eduardo Dato, 7 bajo - 01005 Portal de Foronda, 13 Bajo - 01010

### **Bizkaiko Delegazioak**

**Barakaldo:** Elkano, 9 - 48901

**Basauri:** Nagusia, 3 -48970

**Bilbo:**

Plaza San Pío X, 3 (Puente de Deusto) -48014

Sabino Arana, 34 48013

Alameda Urquijo, 33 -48008

Plaza Santiago, 4, bajo -48005

Colón de Larreátegui, 15 -48001

**Durango:** Juan Antonio Abásolo, 10 -48200

**Galdakao:** Avda. JuanBautista Uriarte, 14 - 48960

**Gernika:** Elvira IturriKalea, 12 -48300

**Getxo:** Avda. Basagoiti, 64 -48991

**Ibaiondo:** 11 - 48930

**Leioa:** Plaza Jose Ramon Aketxe 7, Bajo 1 - 48940

**Portugalete:** Carlos VII, 20 - 48920

**Santurtzi:** Parque Santurtzi, 1, bajo 5 - 48980

**Zalla:** Urb. Tepeyac, 2 (Frente Ayto.) - 48860

**Leioa:** Plaza Jose Ramon Aketxe 7, Bajo 1 - 48940

**Gipuzkoako Delegazioak**

**Azpeitia:** Enparan, 24 - 20730

**Donostia/San Sebastián:**

Hondarribia 32 - 20005

Aita Larroka 5, bajo 2 - 20001

**Eibar:** Juan Guisasola, 14 - 20600

**Errenteria:** Biteri, 45 bajo - 20100

**Hernani:** Elkano, 16 - 20120

**Irún:** Serapio Mugica, 6 - 20302

**Lasarte:** C/ Nagusia, 42, bajo. - 20160

**Ordizia:** Kale Nagusia, 10 - 20240

**Urretxu:** Ipeñarrieta, 5 Bajo - 20700

**Zarautz:** Zigordia Kalea, 11 - 20800

**Zumaia:** Patxita Etxezarreta, 17 Bj - 20750

### 3. GAS NATURAL

Telefonoa: 900 100 502

Fax-a: 934 630 906

Correo Postal:

Gas Natural Fenosa

Gizarte-bonua (indicar tipo: potencia <3kW/Familia numerosa) Apartado N°

6108428028 - Madrid

Web: enlace

Email: bonosocial@gasnatural.com

#### **Bizkaiako Delegazioa:**

Manuel Allende 19, bajo - 48010 (Bilbao)

#### **Gipuzkoako Delegazioa:**

Iparragirre, 20 - 20001 (Donostia/San Sebastián)

#### **Arabako Delegazioa:**

Chile, 5 00009 (Vitoria-Gasteiz)

### 4. EDP KOMERZIALIZATZAILEA

Telefonoa: 900 902 947

Fax-a: 984 115 538

Correo Postala:

EDP.

Apartado Postal 191 33080 Oviedo - Asturias

Webgunea: [esteka](#)

Email-a: bonosocial@edpenergia.es

#### **Arabako Delegazioa:**

San Prudencio, 13 - 01009 (Vitoria-Gasteiz)

#### **Bizkaiako Delegazioa:**

Gran Vía Don Diego López de Haro ,56 - 48010; (Bilbao)

#### **Gipuzkoako Delegazioa:**

Bengoetxea, 3 - 20004; (Donostia/San Sebastián)